

**ARAUDIA
TESTU BATEGINA**

**GAZTE LOKALAREN FUNTZIONAMENDU
ARAUDIA**

1. artikulua.- Xedea

Aramaioko Udalak, herriko gazteriaren egoera aztertuta eta beraien beharrak asetzeko azpiegitura egokiak ez zeudela ikusita, lokal publiko bat gazteen erabilerarako uztea erabaki zuen. Gaur egun dagoen egoera ikusita, honako arauak finkatu dira lokalaren funtzionamendurako.

2. artikulua.- Adina

- 1.- 14 eta 22 urte bitartekoek eskatu ahal izango dute lokaleko giltza.
- 2.- 14 urte betetzen dutenean eskatu ahalko da giltza, eta 23 urte betetzerakoan bueltatu egin beharko dute.
- 3.- Etorkizunean adin honen aldaketa aztertu daiteke eta aldatu.

3. artikulua.- Izen ematea

- 1.- Izena emateko, udaletxean horretarako egokitutako inprimaki bat beteko da eta arau hauen kopia bat sinatuko da.
- 2.- Izena ematen duen gazte bakoitzak giltza bat jasoko du.
- 3.- Izena ematea doakoa izango da, lokalaren erabilera bezala.

4. artikulua.- Erabiltzaileen betebeharrak

- 1.- Giltza duten gazteen ardura izango da lokalaren egoera. Norbait lagunekin edo beste herrietako gazteekin joan bada lokalera, bera izango da pertsona horien guztien arduradun bertan dauden bitartean.
- 2.- Gazte bakoitzak giltza bat izango du; haien ardura izango da lokala itxita eta txukun uztea.
- 3.- Giltza ezin izango zaio inori utzi.
- 4.- Erabiltzaileak oinarrizko txukunetaz eta garbiketaz arduratuko dira.
- 5.- Ura, argia, berogailuak etab. modu egoki eta zentzuzkoan erabiliko dira.

5. artikulua.- Ordezkariek

- 1.- Ordezkaritza lau gaztez osatuko da eta, gazteek erabaki beharko dute nortzuk izango diren. Hauetako bi adinez nagusi izan beharko dira, hau da, 18 urtetik gorakoak.
- 2.- Lokalaren arauak izango dira gazte ordezkarien jardueraren ardatza eta, horrez gain, eginkizun hauek kudeatuko dituzte:
 - Udalarekin harremanak.
 - Sor litezkeen arazo edo gorabeheren kudeaketa.
- 3.- Gazte ordezkariak lokalaren erabiltzaileek horrela adosten dutenean aldatuko da; hala ere,

**REGLAMENTO
TEXTO REFUNDIDO**

**REGLAMENTO DE FUNCIONAMIENTO DEL
LOCAL JUVENIL**

Artículo 1.- Objeto

El Ayuntamiento de Aramaio, después de haber estudiado la situación de los jóvenes del pueblo y viendo que no existen infraestructuras adecuadas para satisfacer sus necesidades, decidió ceder un local público para que lo usaran ellos. Teniendo en cuenta la situación actual, se han establecido estas normas para el funcionamiento del local.

Artículo 2.- La edad

- 1.- Los jóvenes con edades comprendidas entre los 14 y 22 años podrán solicitar la llave del local.
- 2.- Cuando cumplan los 14 años podrán solicitar la llave y cuando cumplan 23 años deberán devolverla.
- 3.- En el futuro puede analizarse el cambio de esta edad y realizar dicho cambio.

Artículo 3.- Inscripción

- 1.- Para realizar la inscripción deberá cumplimentarse el formulario adecuado por el Ayuntamiento y firmar una copia de estas normas.
- 2.- Los jóvenes que realicen la inscripción recibirán una copia de la llave.
- 3.- La inscripción es gratuita y también el uso del local.

Artículo 4.- Obligaciones de los usuarios

- 1.- Los jóvenes que tengan llave del local serán los responsables del mismo. Si alguno de éstos se encuentra en el local en compañía de otros jóvenes de otros pueblos, él se hará responsable de ellos mientras estén en el local.
- 2.- Cada joven tendrá una llave; y será responsabilidad de cada uno cerrar el local y dejarlo en buenas condiciones.
- 3.- La llave no podrá cederse a nadie.
- 4.- Los usuarios se harán cargo de la limpieza básica y orden básico.
- 5.- El agua, la luz, la calefacción... se usarán de manera responsable.

Artículo 5.- Representantes

- 1.- Cuatro jóvenes serán los representantes, que deberán ser elegidos por todos los usuarios. Dos de ellos deberán ser mayores de edad, es decir, mayores de 18 años.
- 2.- Las normas de funcionamiento regirán la actuación de los representantes y, además, gestionarán estas funciones:
 - La relación con el Ayuntamiento.
 - La gestión de los problemas o altercados que puedan surgir.
- 3.- La representación de los jóvenes se cambiará cuanto los usuarios así lo decidan; si bien, no



ezingo dira txandakako epe motzak antolatuta, adibidez hilabetean behin aldatzea.

6. artikulua.- Lokaleko arauak

1.- Gutxienez giltza duen gazteren batek egon behar du beti lokalean jendea dagoenean (ezin da atea ireki eta apuntatuta ez dagoen jendea bakarrik barruan utzi).

2.- Edozein gorabehera gertatzen bada, gazte ordezkariaren bati jakinaraziko zaio eta hark hartuko ditu hartu beharreko erabakiak.

3.- Lokalean ezingo da animaliarik sartu.

4.- Lokalean ezingo da baloiaz edo pilotaz jolastu.

5.- Lokaleko sarrera-irteera libre egon beharko da beti, inongo trabarik gabe. Segurtasun neurri hori oso garrantzitsua da.

6.- Lokalean ezin da gauetan lotan gelditu.

7.- Debekatuta daude edozein motako jarrera sexista, homofobo zein xenofoboak erakustea.

7. artikulua.- Garbitasuna

1.- Lokala erabiltzen dutenek garbi utzi beharko dute egunero.

8. artikulua.- Kalteak

1.- Kalteren bat gertatzen denean, gazte ordezkariak Udaleko ordezkariari komunikatuko diote. (Horretaz arduratzen den zinegotziari).

2.- Kexak, iradokizunak etab. gazte ordezkariak kudeatu eta komunikatuko dizkiote Udalari.

9. artikulua.- Ekipamendua eta gastuak

1.- Udala arduratuko da argia, ura eta bestelako gastuak ordaintzeaz, baita erabilera normalarengatik gertatzen diren apurketak konpontzeaz ere.

2.- Erabilera txarra egiteagatik gertatzen diren apurketak Udaletxeak konponduko ditu, baina erabiltzaileek ordaindu beharko dituzte (Udaletxean izena emanda daudenek), faktura jakinarazi zaienetik hilabeteko epean. Hau bete ezean Udaletxeak beharrezko neurriak hartuko ditu.

3.- Lokalaren barruan ezingo da sukaldatu ezta sua erabiltzen duen gailurik sartu (sukaldeak, kanping-gasa, etab.). Ezta arriskutsuak izan daitezkeen materialak eta gailuak ere.

4.- Lokalean aldaketaren bat egin nahi bada (entxufeak, etab.) ordezkariak eskaera egin eta Udala arduratuko da hauek egiteaz.

10. artikulua.- Jaiak eta egun bereziak

1.- Herriko Jaietan lokala itxi egingo da eta ezin izango da bertara sartu.

podrán organizarse cambios a corto plazo, por ejemplo, cambiar de representantes una vez al mes.

Artículo 6.- Normas del local

1.- Como mínimo, siempre tiene que haber en el local un joven que tenga llave (no podrá quedarse dentro una persona que no esté registrada, sola).

2.- Si sucede algún altercado, se le comunicará a algún representante de los jóvenes y esa persona será quien decida cómo actuar.

3.- En el local no pueden entrar animales.

4.- En el local no se podrá jugar con balón o pelota.

5.- El acceso y salida del local deberá estar siempre libre, sin ningún impedimento. Se trata de una medida de seguridad muy importante.

6.- En el local no está permitido quedarse a pasar la noche.

7.- En el local no están permitidas las conductas sexistas, homófobas ni xenófobas.

Artículo 7.- Limpieza

1.- Quienes utilicen el local deberán dejarlo limpio cada día.

Artículo 8.- Desperfectos/Daños

1.- Cuando se produzca algún desperfecto o daño en el local, los representantes deberán comunicarlo al representante del Ayuntamiento (al concejal responsable del tema)

2.- Las quejas, sugerencias, etc deberán ser comunicadas por el representante al Ayuntamiento.

Artículo 9.- Equipamiento y gastos

1.- El ayuntamiento se encargará de abonar la luz, el agua y otros gastos, así como de los arreglos que pudieran generarse por el uso normal del local.

2.- Los gastos que puedan originarse por el mal uso del local serán abonados por el Ayuntamiento, pero los usuarios del local (quienes estén registrados) serán los encargados del pago posterior de los mismos, en el plazo de un mes después de la notificación de la factura.

En caso de no cumplirse esta norma, el Ayuntamiento se verá obligado a adoptar otras medidas.

3.- Dentro del local no se podrá cocinar ni podrán tenerse otros aparatos que produzcan fuego (cocinas, camping-gas, etc) Tampoco otros materiales o aparatos peligrosos.

4.- En caso de querer realizar algún cambio en el local (enchufes, etc) los representantes deberán solicitarlo en el Ayuntamiento y será éste quien los realice.

Artículo 10.- Fiestas y días especiales

1.- Durante las fiestas del pueblo el local permanecerá cerrado y no se podrá acceder al



2.- Egun berezietan, Udalak komenigarria dela uste badu, lokala itxi egingo da eta ezin izango da erabili.

3.- Udalak aldeaz aurretik jakinaraziko die gazte ordezkariak.

11. artikulua.- Udalaren ahalmenak

1.- Lokala Udalarena da eta berak du azken erabakia edozein gairen inguruan.

2.- Bizilagunen kexak jasoko balira edo erabilera txarrak gertatuko balira, Udalak aukera izango du ordutegiak finkatzeko edo aldatzeko, lokala denboraldi batez ixteko edo lokala berreskuratzeko.

3.- Ezingo da udalak ezarritako aforo maximoa gainditu, 50 pertsona gehienez, segurtasun neurriak direla eta.

4.- Erretzea debekatuta dago.

5.- Erabiltzaileek indarrean dagoen legedia bete behar dute.

6.- Inspezioa: Udalak edozein momentuan egin ahal izango du lokalaren ikuskapena.

mismo.

2.- En días especiales, si el Ayuntamiento lo considera conveniente, el local permanecerá cerrado y no se podrá utilizar.

3.- En cualquier caso, el Ayuntamiento lo notificará a los responsables.

Artículo 11.- Poderes del Ayuntamiento

1.- El local es propiedad del Ayuntamiento y será quien adopte la última decisión ante cualquier tema.

2.- En caso de recibir quejas de los vecinos o si se produce un mal uso del local, el Ayuntamiento tendrá opción de establecer un horario o cambiarlo, para cerrar el local temporalmente o para recuperarlo.

3.- No podrá superarse el aforo establecido por el Ayuntamiento, de 50 personas como máximo, por normas de seguridad.

4.- Está prohibido fumar en el local.

5.- Los usuarios deberán cumplir las normas vigentes.

6.- Inspección: El Ayuntamiento podrá realizar la inspección del local en cualquier momento.

ALDAKETEN HISTORIALA

HISTORIAL DE MODIFICACIONES

Udal Plenoan onartutako eguna / Fecha de aprobación en Pleno Municipal	ALHAOn argitaratutako eguna / Fecha publicación en BOTHA	Aldatutako artikulua / artículos modificados.
2013/10/03	2014/02/21	Lehen onarpena / Primera aprobación

OHARRA: Testu hau hasierako testuaren eta ondoren aipatzen diren aldaketen bertsio bateratua da. Bere helburua soilik informatzailea eta kontsultakoa da. Legezko baliodun testu bakarrak publikazio ofizialetan jasotakoak dira.

NOTA: El presente texto es una versión integrada del primer texto y de las modificaciones que se indican. Su publicación tiene finalidad exclusivamente informativa y de consulta. Los únicos textos considerados legalmente válidos son los que aparecen en las publicaciones oficiales.